



Egunotan, Andoainen, Outlet kalean

"Bezeroaren Astea"ri ekin dio Salkin merkatarien elkarteak / 12



**Etxeberri plazako
jaien etorkizuna
kolokan dagoela
iragarri dute
antolatzaileek** / 6-7



**Italiako Giroko
etapa menditsuetan
barrena ibili da
Leizaur klubeko
txirrinduzale taldea** / 11

2026-2027

EMA KUMEONTZAKO

jabekuntza eskola

IZEN-EMATEA ZABALIK



Euge Arrizabalaga, Mikel Urdangarin eta Eider Mendoza, aurreko ostiralean, Goikoplazan. EAJ-PNV

Hautagaitza aurkeztu du Urdangarin jeltzaleak

2027ko maiatzean udal hauteskundeak deituko dituzte, datozen lau urteetako agintaldia osatzeko. Andoaingo EAJ-PNVk hautagai berria aurkeztu du jendaurrean: Mikel Urdangarin Castro. Aurreko asteburuan egin zuen aurkezpen ofiziala, Goikoplazan

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Ordezkaritza duten lau alderdi politikoetatik goiztiarrena EAJ-PNV izan da. Dagoeneko ofiziala da Mikel Urdangarin Castro-ren hautagaitza. Andoaindarra, kaletxikitarra, musikaria eta musika irakaslea... Imanol Goenaga Egibarren lekukoa hartuko du Andoaingo jeltzaleen udal taldean. Aurreko hauteskundeean hiru zinegotzi lortu zituzten eta, ziklo politiko berriari begira, emaitza eta ordezkariak handitzea helburu dute. Gainerako alderdietan, argi dirudi EHBilduk Andoni Alvarez eta PSE-EEk Aritz Alkain egungo bozeramaileak aurkeztuko dituztela. Elkarrekin Podemosen kasuan ez dago oraindik erabakita. Pepe Iparragirre zinegotziak hautagaitza errepikatuko ote duen ikusteke dago.

Jeltzaleen aurkezpena, Goikoplazan

Ekimen betean da EAJ-PNV. Jendaurrean egin zuten aurkezpen publikoa eta, egun hauetan,

sektore guztietako ordezkariak elkartzeko erronda martxan jarri dute.

Goikoplazako ekitaldian ildo nagusiak aurkeztu zituen Urdangarin. Dena esatera, alderdiaren babes zabala jaso zuen hautagai berriak: Euge Arrizabalaga GBBko lehendakaria, Eider Mendoza Ahalduen Nagusia eta Gurutz Irigoras herriko jeltzaleen ordezkaria alboan zituela hurbildu ziren mitinera. Bertan zirenek txaloka jaso zituzten. Goenagak egin zuen aurkezle lana eta protagonismo osoa Urdangarin eta Arrizabalagak hartu zuten. Ikusleen artean, jeltzaleen aurpegi ezagun ugari: Maribel Vaquero Espainiako Kongresuko bozeramailea, Joseba Egibar GBBko lehendakari ohia, Jorge Segurudo Urnietako alkatea... eta Andoaingo eta Urnietako jeltzale ezagun ugari. Tartean, Mikel Arregi, Marijose Izagirre, Iñaki Egibar, Alex Huitzi, Txitxu Ruiz, Idoia Mikelez, Imanol Goenaga, Mikel Pagola Urnietako alkate ohia, edo-

ta, Agurtzane Mercader Urnietako alkate-ordea. Han ziren ere hautagaiaren gurasoak, Eneko Urdangarin eta Txitxu Castro, eta etxeokak.

“Auzoak, pertsonak eta etorkizuna” izango dira EAJ-PNVren hautagaiaren ardatzak, 2027-2031 ziklo politikoari begira. Herriarren aurrean egindako adierazpenean, norabidea aldatu beharra dagoela uste du hautagai berriak: “Andoainek bultzada berri bat behar du. Horregatik hartu nahi dugu lidergoa geure gain; ez soilik ondo kudeatzeko, baita gaur egungo arazoei aurre egiteko eta etorkizunari anbizioz begiratzeko ere”. Izan ere, Urdangarin ustez, “Andoain geldirik dago. Klean ikusten da, eta auzokideekin hitz egiten dugunean entzuten dugu”.

Arrizabalaga GBBko lehendakariak eman zion amaiera mitinari, Aita Larramendiren hainbat aipamen tarteko, abertzaletasunaren, euskararen eta konpromisoaren aldeko defentsa eginez.



Hiribus, Andoaingo herri barruko bus zerbitzua. AIURRI

Andoaingo Hiribusaren ordutegia, ikasturte berrian

Ikasleei begira, goizeko 08:20tan abiatzen den zerbitzua nabarmendu dute

Erredakzioa ANDOAIN

Ikasturtea martxan da eta, eskola garaian, ordutegi jakinetan, ibilgailuen joan-etorria nabarmen handitzen da. Hiribusak autoaren erabilera murrizteko baliagarria behar luke izan, ia herri-gune osoa zeharkatzen duelako. Ikasturte berrian, esaterako, goizeko 08:20tan abiatzen den zerbitzuan jarri du azpimarra Andoaingo Udalak. Xedea argia baita: eskola ordutegiarekin bat egiten duen zerbitzua eskaintzea. Garraio publikoaren erabilera sustatu nahi da modu horretan.

Hiribusaren ordutegia, lan egunetan eta jai-egunetan

Busa Sorabillatik abiatzen da eta irteera bakoitzaren ordutegia geltoki hura aintzat hartuta egin da.

- Lan egunak: 07:30 (2), 08:20 (1), 09:30 (2), 10:30 hilerria 11:30 hilerria, 14:00 (1), 15:00 (2),

16:00 (1), 17:00 hilerria, 18:00 (2), 19:00 (1), 20:00 (1).

- Larunbatak: 09:30 (2), 10:30 hilerria, 11:30 hilerria, 12:30 (2), 16:00 (1), 17:00 (2).
- Jai-egunak: 10:00 (1), 11:00 (2).

Hiribusaren ibilbidea, kalez kale

Ibilbide guztiek Sorabilla dute abiapuntu, baina, ondoren, bi aldaera ditu bus zerbitzuak.

- Ibilbidea (1). Udaletxetik: La Salle etorbidea, Erroitz, Idiazabal 13, Erroitz, La Salle etorbidea, Kaletxiki, Ama Kandida, Illarramendi poligonoa, Rikardo Arregi.
- Ibilbidea (2). Udaletxetik: Kaletxiki, ADIFeko tunela, Idiazabal, Aranaztegi, Super Amara, Aranaztegi, Idiazabal, Erroitz, La Salle etorbidea, Kaletxiki, Ama Kandida, Illarramendi poligonoa, Rikardo Arregi.



andoa**INDARRA**
euskaraz

Ipuin eta gutun lehiaketa izango da aurtengoa

Martin Ugalde Ipuin Lehiaketa XXX. ediziora iritsi da eta, aurten, Andoaingo Udalak I. Gutun Lehiaketa abiarazi du. Ipuin lehiaketan 10 eta 13 urte bitarteko gazteek parte har dezakete; gutun lehiaketan, berriz, 14 eta 17 urte artekoek

Erredakzioa ANDOAIN

Gutun lehiaketa izango da berrikuntza nagusia, aurtengo edizioan. Bi aldaera izango ditu, beraz, deialdi beriak: ipuin lehiaketa, 10 eta 13 urte dituzten gazteei begirakoa; eta, gutun lehiaketa, 14 eta 17 urteko gazteentzat. Xehetasunak Marta Lasa zinegotziak eta Garazi Kamio irakasle eta idazleak eman zituzten, Bastero Kulturgunearen kanpoaldean egin zuten agerraldian. Lasak gaineratu duenez, "hiru hamarkada igaro dira lehenengo edizioa martxan jarri zenetik, eta denbora honetan guztian lehiaketa honek ehunka gazteren sormena, irakurzaletasuna eta euskarazko idazketa sustatu ditu".

Lehiaketa bakoitza, bi mailatan

Ipuin Lehiaketa:

- 1. maila: 10-11 urtekoena (2016 eta 2015 urteetan jaiotakoak).
- 2. maila: 12-13 urtekoena (2014-2013 urteetan jaiotakoak).

Gutun Lehiaketa:

- 1. maila: 14-15 urtekoena (2012 eta 2011 urteetan jaiotakoak).
- 2. maila: 16-17 urtekoena (2010 eta 2009 urteetan jaiotakoak).

Oinarriak eta informazio osoa, honako estekan aurki daitezke: martinugaldefondoa.eus/ipuin-lehiaketa.



Astelehen goizean egin zuten aurkezpen ekitaldia. AIURRI

Gutun lehiaketa, gaia jarrita

Gutunen lehiaketa berrirako gaia jarri dute, honakoa: parte-hartzaileek egoera kritiko batean daudela irudikatu beharko dute, eta lagun bati gutun bidez komunikatzeko beharra izango dute. Ariketa: "Ez duzu telefonorik, ez dago internetik, eta ez dakizu zure lagunak gutuna irakurriko duen, baina komunikatzea behar duzu".

Ipuin lehiaketa, gai librean

Urriaren 8an aurkeztu beharko dira lanak, Bastero Kulturgunean.

neko harreran edo posta elektronikoz, martinugalde@andoain.eus helbidera bidalita.

Epaimahaiak aztertuko ditu jasotako lanak eta datorren azaroaren 11n egingo dute sari banaketa ekitaldia, Bastero Kulturgunean.

"IPUIN LEHIAKETAREN BAITAN, GUTUN LEHIAKETA MARTXAN JARTZEKO ERRONKA BEREZIA DA"

UDAKO POSTALAK

JON ANDER UBEDA ANDOAIN

Irailaren hasierako irudi hura



Farmear aura, Zumea plazan. Egunak dira egin zela, baina hilabetea igaro dela dirudi.

Iritsi bezala desagertzen dira on line modak. Iragankorrak dira, egunerokoa bizi dugun abiadura beretsuan. Eta eskerrak! Farmear aura dema izan genuen Zumea plazan, irailaren hasieran. Egunak igaro dira, egunak besterik ez, baina nahikoa zalaparta eragin zuen hitzorduak. Antolatzailea azti aritu zen gaztetxoen intereseko ekitaldia antolatzen eta, iragarpenean bete-betean asmatu bazuen ere, eguna iritsi eta urrutiko intxaurrekin gertatu bezala... ezer ez, eta festa! Ikustekoa izan zen, sare sozial ezagunetan, ekimen hura ulergaitza zitzaienen haserrea. Halakorik, hemen! Auzolotsa! Eta haurren gurasoak non dira?... antzekoak irakur zitezkeen iruzkinetan, bai. Zein sare sozialetan? Bada, farmear aura ekimena hauspotu zen berberetan. Paradoxa galaktikoa da: adin nagusikoak diren helduek denbora eta arreta galtzen dute -bai, galdu- Instagramen eta Tiktoken. Eta haietan hauspotutako ekimen bat, herriko plazan ikustean, lotsagorritu eta sare horietan bertan haserre agertzen dira. Hamaika ikustekoak gaude, bai. Eskerrak oraingo moda horiek iragankorrak diren. Bitartean, erridikuluaz ari garela, farmear auraren *postureoa* lotsagarria iruditzen zaien horiek auzolotsa galanta eragin dute, euren bizitzan, "Asereje", "Paquito el chocolatero" edota "Macarena" abesten eta dantzatzen. Eta gaurdaino iristen da joera hori. Beude isilik.



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Lide Ruiz Telleria.

Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetza: Garbifé Ugarte Mendia. idezkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietan).

Diseinua: Goiena / TOKIKOM.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



AIURRI

Guadalupeko Amaren omenez

Andoaingo Hogar Extremeño elkartearen, Extremaduraren eguna eta Guadalupeko Ama Birjinaren eguna ospatu zituzten. Bazkideez gain, udal ordezkariak zabala hurbildu zen elkartera. Extremadurako ereserkia jarri zuten bozgorailuan, ekitaldiari hasiera emateko.

Ekitaldian, hango gastronomiaz gozatzeko aukera baliatu zuten: txerri probak, txorixo egosia, Montanchezeko urdaiazpikoa eta xolomoa, eta Acehucheko gazta. Edateko, berriz, Esparragosa de la Serenako eta Bastiviejoko pitarra ardoa izan zuten aukeran.



AIURRI

Andoaingo Gudua, gogoan

Aurreko larunbatean, Andoaingo Gudua gertatu zeneko 189. urteurrena bete zen. Eta, efemeridea baliatuta, guduari buruzko ibilaldi gidatua antolatu zuen Manuel Larramendi Kulturez Bazkunak. Udalerriaren barrena ibili ziren parte-hartzaileak, lehen karlistaldian (1833-

1844) aditua den Jon Unanuek gidatuta. Andoaingo euskara elkarteak Kale Berria 50. zenbakian –Guipuzcoano zaharrean– eskuratu berri duen egoitzaren parean ekin zioten ibilaldiari. Ekimen berriak antolatuko ditu elkarteak udazkenean.

Basobideak konpondu dituzte Adarramendi inguruan

Urnietako Udalak jardun du lan horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan

Erredakzioa URNIETA

Esku-hartze nagusiak Monte-friotik eta Antsoko Etxolatik Otsoleporaino egin dituzte. Horrez gain, beste hainbat puntutan ere hobekuntzak egin dituzte. 182 gunetan, adierazi dutenez.

Askoren artean, zorua hobetu eta arekak, ezpondak eta ur-isurbideak garbitu eta egokitu dituzte, eroritako zuhaitzak baztertu, kanadiar pasabideak egokitu eta zabaltu eta ibaier-tzetako landaredia berritu dute.



Zorua hobetu dute hainbat gunetan.

URNIETAKO UDALA



Ikasturteko eskaintzaren berri eman du Urnietako Udalak. URNIETAKO UDALA

Urnietako Jabekuntza Eskola ikasturte berrirako prest da

Ikastaro eta tailerretan parte hartzeko aukera ikasturte osoan zabalik izango da

Lide Ruiz Telleria URNIETA

Urnietako Udalak emakumeei zuzendutako Jabekuntza Eskola antolatu du, eguneroko bizitzan, autonomia, indarra eta konfiantza sustatzeko helburuarekin. Eskolak hamabi jarduerak eta hainbat berrikuntza eskainiko ditu ikasturte berrian.

Korrika dabilen taldeari jarraipena emango diote, astearteroko hitzorduak ertsiz. Arixen Unanue atletismoko entrenatzailea izango da arduraduna.

Beatriz Egizabalek eta Paki Caballerok Klown ikastaroa eskainiko dute, eta indar-entrenamendua egin nahi dutenek Emai Fisioterapiari izango dute aukera. Horrez gain, Ainhoa Aierdik menopausian oinarritutako nutrizio-ikastaroa zuzenduko du.

Emagin eta Elkarrekin Hazi elkarteek, bestalde, irakurketa-tailerak bideratuko dituzte.

Alde batetik, euskarazko irakurketa feminista taldea osatuko da eta, bestetik, gaztelaniaz, munduko emakume idazleen irakurketa-kluba egongo da.

Tailer gehiago antolatu dituzte: Lamyaa Zarrouk urnietarra-ekin Marokoko gozoak egiten ikasteko aukera izango da, Habitantes de Insmouth herriko rol klubeko emakumeei, berriz, rol-jokoen munduan murgiltzeko aukera eskainiko dute, eta Puy Barral narratzaileak jendaurrean hitz egiteko teknikak irakatsiko ditu Xoxokako Eskola Zaharrean.

Gainera, Rocio Narbaizak eta Agadelprieze elkarteak lipedemari buruzko mahai-ingurua egingo dute, gaixotasunak emakumeen osasun fisikoan, emozionalean eta sozialean duen eragina azaltzeko.

Izena ematea ikasturte osoan zabalik izango da.



Urnietako
udala

PROTAGONISTA

"Egoitza berria euskararentzat babeslekua izatea nahi dugu"

ANE JALON MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNeko LEHENDAKARIA

"Egigun denon artean!" izenburupean, euskara elkarteak udazkeneko lehen ekitaldia iragarri du: datorren irailaren 25ean izango da, 18:30ean hasita

Lide Ruiz Telleria ANDOAIN

Hirugarrenez Zehar kaimuturreko hitzordua iragarri duzue. Finean, euskaltzaleak elkar topatzeko hitzordua da musika eta edaria tarteko. Beharrezkoak direlako, akaso, halako topaketak, bilerak edo antzeko hitzordu serio eta formalagoen aurrean?

Bilkura instituzionalagoek edo, nolabait esatearren, serioagoek beti egon behar dute, eta garrantzitsuak dira. Baina, Bazkunaren kasuan, eta baita beste elkarte batzuen kasuan ere, aisialdiarekin edo modu informalgorekin lotutako ekimenak antolatzeak beste helburu batzuk ditu: saretzea, jendeak gu ezagutzea, herritarrengana beste modu batean hurbiltzea... Hori da azken urteotan Bazkunak duen erronka: herriratzea eta herriarekin egotea. Horregatik, guretzat, kaleko topaketa horiek oso garrantzitsuak dira.

Aurtengoak badu berrikuntza nagusia: Guipuzcoano zaharraren ateak zabalduko dituzue. Irekieraren iragarapena da?

Banco Guipuzcoano zaharraren ateak ez ditugu bere horretan irekiko, modu sinboliko batean helaraziko diogu herriari euskarak baduela arnasmune. Izan ere, ateak beranduago ireki beharko ditugu; orain arte lan handia egin dugu egoitza gureganatzeko baina oraindik beste lan batzuk egin beharko dira ireki aurretik, obra eta atontze-lanak, batez ere. Hortaz, zerbait

erakutsiko dugun arren, irekiera ofiziala beranduago egingo dugu.

Zer nolako garrantzia du elkartearen etorkizunean egoitza berriak?

Guretzat mugarrria da. Bazkunak urte asko zeramatzan lokal berri baten bila. Elkartearen herriratzeak, funtsezkoa ikusi genuen Andoaingo erdigunean egotea, uste baitugu euskarak merezi duela ikusgarria izango den espazio bat izatea. Azkenean lortu dugu, eta oso pozgarria izan da.

Zer adieraziko duzue bertan? Zerbait aurreraterik bai?

Bazkideak eta andoaindarrak bildu nahi ditugu. Orain arte gure ibilbidea zein izan den azalduko dugu, eta hemendik aurrera zer antolatu nahi dugun modu orokorrean eta udazkenean zein ekimen izango ditugun ere. Batez ere, modu sinboliko bat izango da jendeari lortu dugunaren berri emateko, euskarak baduela toki polit bat Andoaingen. Hain zuzen ere, egun horretan sinbolismoarekin jokatu nahi dugu, eta euskarak babesten gaituen bezala, guk ere euskara babestu nahi dugu eta horregatik, aterkiekin jolastu nahi dugu. Festa Zehar kaimuturrean izango da, baina ekimena Guipuzcoanon hasiko da eta bi puntuak aterkiekin lotu nahi ditugu, aterkiek babesa ematen digutelako, euskarak babesten gaituen bezala, eta guk ere euskara babestu behar dugulako. Joko horren bidez, kalejira egingo dugu bi puntuak lotzeko.

Errealitatea da, beraz, egoitza berria. Atzera begira jarrita, asko kosta al da honaino iristea?

Argi genuen Bazkuna herriratzeak beharra zegoela eta lokala behar genuela. Baina era berean, erraza da esatea lokal berria nahi dugula, baina, zertarako nahi dugu? Zer nahi dugu? Iritzi asko bildu ditugu urteetan zehar. Urte batzuk eman ditugu Andoaingen lokalak ikusten, negoziatzien... Hor beti daude alderdi ekonomikoa, soziala, kokapena... Egia esan, kostatu zaigu, baina gogoia eta ilusioa ez ditugu inoiz galdu. Bilera eta batzar asko izan ditugu tartean, baina guk beti izan dugu buruan orain lortu dugun hori, Kale Berria 50eko lokala.

Bazkunak udazkenean ekimen ugari egin ohi ditu. Hitzordua berriak datoz atzeik, bereziki, azoka.

Ikasturtearekin batera hasi zen udazkeneko agenda guretzat, irailaren 12an Andoaingo Gu-
duari buruzko ibilbide gidatua eskaini baikenuen. Hurrengo hitzorduak ere buru-belarri prestatzen ari gara. Irailaren 17an, bazkideei harrera egingo diegu egoitza berrian. Irailaren 25ean, kaimuturreko ekimena egingo dugu, Gau Beltza ere izango dugu, eta, azkenik, azoka. Bestalde, iaz antolatutako gabonetako azoka ere egoitza berrian antolatzeko asmoa dugu. Denak dira garrantzitsuak. Orain arte, Gau Beltzan eta azaroko azokan murgilduta gaude, eta espero dugu



Ane Jalon, Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko lehendakaria. AIURRI

aurreko urteetan izan duen harrera bera izatea.

Elkatea tokiz aldatu eta bidean bazkide berriak egiten ari zarete. Hori ere, beharrezkoa izateaz gain, pozgarria da.

Azken urteetan bazkide berri dezente batu zaizkigu. Izugarriko ilusioa egiten digu, alde batetik, tenperatura hartzeko modu bat delako, horren bidez ikusten baita Andoaingo jendeak gure proiektuarekin bat egiten duen edo gure kezka horiekin bat datorren, eta momentuz badirudi baietz. Elkarte bat gara eta oso garrantzitsua da bazkideak izatea, orain arte izan ditugunak zein ondoren etorriko direnak ere elkarteak aurrera egin dezan. Denak dira ongi-etorriak, orain batu direnek poz handia eman digute.

Egoitzak etorkizunean izango duen dinamika aurreraterik baduzu, ala goizegi da?

Orain arte izan dugun arazoa izan da lehen genuen egoitzak ez zigula uzten bertan zerbait antolatzen. Beti kalean edo Basteron ibili behar izan dugu, eta horrek zaildu digu buruan ditugun ekimenak aurrera eramatea, liburu-aurkezpen bat, musika-saio bat, antzerki obra bat edo umeentzako ipuin-kontalari bat... Orain, gure egoitzan egiteko aukera

dugu. Horrek ilusio eta indar handia ematen digu. Kalean ere jarraituko dugu, noski, baina ondo dago guk gure tokia izatea. **Herritarrei zabalik izango da, hori ziur.**

Bai, gure asmoa da andoaindarrei zuzendutako egoitza izatea, eta bereziki zabalik egotea; hau da, ez dugu nahi lokala itxita egotea eta noizbehinka bakarrik irekitzea. Ikusi behar dugu zer proiektu egingo ditugun, baina guk lokal bizi bat izatea nahi dugu, eta Andoaindarrentzat irekia egotea. Era berean, egoitza berria euskararentzat babeslekua izatea nahi dugu.

Datorrenagatik, beraz, topa egin beharko da irailaren 25ean, ezta?

Bai, noski. Oso pozik gaude, une oso berezia izango da herritarrei azaltzeko orain arte haiei esker lortu dugula orain daukaguna. Haien ekarpenak, parte-hartzea eta auzolana eskertu nahi diegu, eta aitortza hori egingo diegu. Ospatu egingo dugu.

KAIMUTURREKO EKITALDIA DATORREN IRAILAREN 25EAN IZANGO DA, 18:30ETAN HASITA



Urrietako Etxeberri plazako Jai Batzordeko kideak, jaiari hasiera eman berrikan. AIURRI

Agur kutsuko festak, Etxeberriin

Eguraldia lagun zutela, asteburu osoko festak egin zituzten Etxeberri plazan. Etorkezuna, ordea, kolokan dago. Halaxe adierazi zuten antolatzaileek jaien hasierako pregoian. Nekeak eraginda, 2017an hasitako ibilbidea etetear dela dirudi

Xabier Lasa URNIETA

“Aurtengo pregoia” entzun zen bozgorailuan, aurreko ostiral arratsaldean. Eta, segidan, Fran Bravok ekin zion jai batzordeak prest zuen idatzia euskaraz irakurtzeari. Lerro haien artean iritsi zen albistea: kitto, amaitu daitezkeela Etxeberri plazako jaiak. Esther Toribiok irakurri behar zuen erdarazko adierazpena, baina, jaiak azkenera iristear zirela adierazteko uanean, ezinezkoa zitzaion hitz horiek ahoskatzea. Emozioak jota, eta ezinean, Bravok hartu zion lekukoa. “Zoritzarrez, eta ikusita, indarrak gutxitzen ari zaizkigula, gerta liteke gure azken urtea izatea. Baina, tira, har ezazue azkena balitz bezala eta goza ezazue topera!”.

Auzoa eta herria egitea baita, neurri handian, jaiak antolatze-ko arrazoi nagusia. Horrexega-

tik, izaera berezia hartu du aurtengo adierazpenak. Hauexek, taula gainetik, bi ordezkariak egindako adierazpenaren muina: “herri edo auzo bat bizirik mantentzeko, lantaldea behar da proiektu desberdinak aurrera ateratzeko, esaterako, auzoko jaiak. Hemen elkartu garenak, antolatzaileak eta festazaleak, jaiiez gozatzen eta egitarauko hitzorduetan parte hartzen dugu. Jaiak antolatzen ditugun zortzigarren edizioa da eta eskerrak eman nahi dizkizuegu gure artean egoteagatik. 2026koa berezia izango da, ez dugu esango azkena izango dela, baina gerta daiteke horrela izatea”.

Behin ezustekoa emanda, jaien izaera azaltzeari eta parte-hartzea sustatzeari eutsi zioten: “hasieratik giro atsegina sortzen ahalagindu gara, adin guztietakoak aintzat hartzen, bai gaztetxoak,

bai helduak. Aurtengoa ere ildo beretik doa. Etxeberriko auzoko elkartetik zuek guztiok ongi pasatzea nahi dugu eta honekin batera eskatzen dizuegu errespetua, hemen zaudeten guztioi eta baita antolatzaileei ere. Bide batez, gure aitortza hainbat lanetan laguntza eman diguten guztiei: eskerririk asko guztiei! Dakizuenek, Etxeberri jaitziko da laster eta horrela hasiko dira jaiak. Beraz, Gora Etxeberri! gora Etxeberriko jaiak!”. Pan-pintxoak zerutik jaitsi eta ekin zioten jaiari. Azkena izan litezkeela burutik kendu ezinik.

**"HAR EZAZUE
AZKENA BALITZ
BEZALA ETA
GOZA EZAZUE
TOPERA!"**



Esther Toribio eta Fran Bravo, pregoia irakurri aurreko uneetan. AIURRI



Etxeberri tximinoa, jaitzietan ekiteko uanean. AIURRI



Aurten festazale ugari elkartu zen jaien hasieran. AIURRI



Zezen mekanikoa, ostiral iluntzean. AIURRI

Lehen aldi hura, 2017an

ATZERA BEGIRA JON ANDER UBEDA

Irailaren 9a izan zen, 2017. urtean, Etxeberri plazako ospakizunen aroa abiatu zenean. Geroztik, pandemia bazterrean utzita, auzo-elkarteak jaiak antolatu ditu ikasturtea hastearekin batera. Geroztik, antzekoa da lantaldea. Orduko hartan, Aiurriko hitzordura, Fran Bravo, Marta Mandayo eta Estela Cuevas hurbildu ziren. Lehen edizioa egun osoko ospakizuna izan zen. Hori bai, goizetik gauerdira ondo hornitutako egitarauarekin: goizeko 11:00tan egin zuten txupinazoa eta, segidan, ekitaldi ugari, honako hurrenkeran: ginkana, paella-jatea, eskulanak, bingoa, karaokea, patata-tortilla lehiaketa, afari herrikoia eta disko-festa. Ordu txikietan izendatu zituzten, lehiaketa bidez, auzoko Miss eta Mister. Xedea, orduko hartan, egungo berbera zen: auzoari bizitasuna ematea eta gainontzeko herritarrek bertara gerturatzea nahi zuten antolatzaileek. 2017tik gaurdaino, hein handi batean, helburu bikoitz hori lortu dute.

Hasiera guztietan gertatu ohi denez, antolatzaileak gogotsu zeuden eta jaiaristeko atarian aurreikuspen positiboa

egiten zuten: “Auzoetako festak antolatzea oso garrantzitsua da eta ez dugu ohitura hori galdu behar”, azpimarratu nahi izan zuen Fran Bravok. Hemerrotekarekin jarraituz, iragarpena jasotzen zuen orduko Aiurri: "festa ondo ateratzen bada, datorren urteetara begira, auzoko festa indar handiagoarekin gauzatzera animatuko direla adierazi dute".

Zorionez, aurrikuspenak bete, eta jaiak dimentsio handiagoa hartu zuen. 2018tik hona asteburu osoko ospakizunak izan dira. Egitarau xumea, bai, baina hitzorduz beterikoa. Eta hori guztia aurrera ateratzeko lantaldea behar da.

2026ra iritsita, nekeak jota dabilta Etxeberri plazako jaien lehen aroari heldu ziotenak. Ikustear da 2027an jaiak jarraipena izango duen edo ez. Baiezkoa balitz, antolaketa leku hartzeko prest dauden kide berriak batu diren seinalea litzateke. Ezezkoa balitz, orain arte egindako guztiagatik eskerrak ematea

2017KO IRAILAREN 9AN EGUN OSOKO OSPAKIZUNA EGIN ZUTEN. HURA IZAN ZEN JAIEN LEHEN EDIZIOA



Fran Bravo, Marta Mandayo eta Estela Cuevas, 2017ko irailaren hasieran egindako argazkian.. AIURRI

bestarik ez da geratuko. Egin dutena handia izan baita.

Izan ere, auzo berria izanik, auzotartasuna sustatzeko egin duten ahalegina garrantzi handikoa baita. Jaiak ospatzea komunitatea egiteko tresna indartsua baita.

Ia hamar urte atzera, bazkari batetik sortutako ideia errealitate bihurtu zuten Etxeberriko auzotarrek. Hazia erein dute eta, akaso, urteren batean fruiturik ez du

emango haziak. Baina horrek ez du esan nahi geroan emango ez duenik. Pentsa dezagun sortuko direla jaiak antolatzen jarraitzeko kimu berriak. Eta, bitartean, eskerrik asko Estela, Fran eta hainbat lanetan laguntzaile aritu diren gainerako kideei.

ORDUKO HARTAN, ETA ORAIN, XEDEA BERBERA ZEN: AUZOARI BIZITASUNA EMATEA



Eguraldi ederreko goiza baliatuta, lasterketa ederra egin zuten kirolari gazteek. Amaieran indarrak berreskuratzeko aukera izan zuten antolatzaileek jarritako postuari esker. AIURRI



Argazki-bilduma ikusgai dago Aiurri.eus webgunean, argazki-galerien atalean. AIURRI



Julen Elorza bideogile arrasatearrak zuzendutako lan honek 2025eko BBK Mendi Film jaialdiko Kirol eta Abentura Film Onenaren Saria jaso zuen. CANTOS Y FLORES

Ikusgai izango da Saroben Mendi Film jaialdiko onena

Datorren irailaren 22an, arratsaldeko 19:00etan hasita, mendizale eta abenturazaleek ezinbesteko hitzordua izango dute Urnietako Sarobe Arte Eszenikoen Gunean: film jaialdi ezagunean saritutako hainbat lan ikusgai izango dira

Iraia Sanchez Arregi URNIETA

BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia jaialdiaren azken edizioako hiru film onenetakoak ikusteko aukera egongo da Urnietan, eta dohainik. Mendi Tour zirkuituaren 9. edizio honen barruan, mendi garaiak, paisaia ikusgarriak eta goi-mailako kirol-erreak ez dira protagonista bakarrak izango; haien atzean dauden giza istorioak, emozioak eta erronka pertsonalak ere gailenduko dira. Gozatu ederra, beraz, mendia gogoko dutenentzat.

Emanaldi honek, gainera, euskal ekoizpena eta bertako sortzaileen lana jarriko ditu erdigunean. Pantailaratuko diren hiru dokumentaletatik bik euskal zuzendarien sinadura darabate eta nazioarteko jaialdian sari nagusiak eskuratu dituzte. Haien ondoan, nazioarteko muturreko eski espedizio ikusgarri batek osatuko du hiru laneko egitarau borobila.

Honatz ikusgai izango diren hiru ikus-entzunezkoen xehetasunak:

Euskal ekoizpenak nagusi: kirola, mina eta barne-bidaia

Ikusleen arretaren zatirik handiena etxeko bi ekoizpen sarituek erakarriko dute, bi euskal zuzendariren giza ikuspegiak eta sentikortasunak gidatuta.

'CANTOS Y FLORES' (JULEN ELORZA) KIROL ETA ABENTURA FILM ONENA

Julen Elorza bideogile arrasatearrak zuzendutako lan honek 2025eko BBK Mendi Film jaialdiko Kirol eta Abentura Film Onenaren Saria jaso zuen.

Euskarazko eta gaztelaniazko azpitoluekin ikusi ahal izango den dokumental honek Boliviako mendi ikonikoenetara benetako barne-bidaia bat proposatzen du. Filmak 27 minutuko iraupena du.

Zertaz doa? Bere anaia hil eta zazpi urtera, Karina Carsoliok berriro heldu dio elkarrekin partekatutako amets bati: Boliviako Huayna Potosi, Illimani eta Sajama mendiak igo eta jaistea, FKTak (Fastest Known Time edo onartutako markarik azkarrenak) egiteko ahaleginean. Hillary Gerardi mendiko korrikalari ezagunarekin batera, erronka fisiko hutsaz harago doa esperientzia; mendia minaren, orbaintzen diren zaurien eta elkartze espiritual baten ispilu bihurtzen da.

Zuzendaria eta filmaren sorburua: Julen Elorza trail running munduan erabat ezaguna den filmmaker-a da. Skyrunner World Series lehiaketako bideo ofizialen egilea izateaz gain, 2022an 'La Gara' film laburra aurkeztu zuen jaialdian. 'Cantos y Flores' lana grabatzeko uneaz gogoratuz, Elorzak Goienan azaldu zuen Peruko lasterketa bat baliatu zuela 2024ko udan Bolivian hiru seimilako igotzeko, "gora eta behera geratu barik". Oztopoak oztopo -gai-xotasunak eta eguraldi txarra tarteko-, zuzendariak izugarri ikasi zuela aitortu du. Saria jasotzea ez zuela espero gaineratu du: "Lana ia amaituta zegoela erabaki genuen aurkeztea, eta sorpresa oso atsegina izan da; indarra ematen du aurrera jarraitzeko".

'IZARREN ZAUNKA' (NAGORE ECEIZA) EUSKARAZKO FILM ONENA

Nagore Eceiza Donostiako zuzendariaren film honek EITB Saria eskuratu zuen iazko Mendi Filmean, Euskarazko Film Onenaren atalean. Testu eta hausnarketa poetikoen bidez osatutako lana da, eskaladaren bidez erori eta altxatzeko prozesu pertsonala erakusten duena. Filmak 18 minutu irauten du.

HIRU IKUS-ENTZUNEZKO IKUSTEKO AUKERA IZANGO DA SAROBEN, IRAILAREN 22AN

Zertaz doa? Mikel Saez de Urbain eta Iker Uranga eskalatzaileak dira protagonista nagusiak Txindokiko mendi parajeetan. Bi lagunak Larraitzen elkartuko dira Mikelek Txindokin liberatu berri duen bide bat eskalatzeko. Mikelek tokiko bakean inspirazioa bilatzen duen bitartean, Ikerrek bere min kronikoetatik, insomniotik eta antsietatetik askatzea lortu nahi du. Txindokiko ertz mitikoa iluntasunaren eta argiaren arteko mugatzat hartuta, naturan eta laguntasunean berriro zutik jartzeko ahalegina kontatzen du dokumentalak.

Zuzendaria eta filmaren sorburua: Nagore Eceiza donostiarra argazki-zuzendari, muntatzaile eta El Santo Films ekoiztetxearen sortzailea da. Nazioarteko izaera sozialeko dokumental askotan parte hartu izan du Ezeizak (Amazonian, Indian, Mexikon...). Lan honen jatorrian, Iker Urangak berak izandako barne-hausnarketa eta bilaketa sakona dago: ez zuten gailurra-aren epika edo "arrakasta merkea" goretsi nahi, baizik eta erortzearen eta berriro jaikitzearen benetako zentzua erakutsi nahi izan zuten. Txindokiko horma bertikaletan irekitako bide berri baten bidez, eskalada eta bizitzaren arteko lotura osatu dute.

NAZIOARTEKO IKUSGARRITASUNA: MUGA FISIKOAK

Bi euskal ekoizpen horiekin batera, gaualdia osatzeko ikusgarritasun tekniko zein fisiko handiko lana eskainiko da:

AEBko 45 minutuko ekoizpen honek muturreko kirolaren eta espedizioen alderdirik gogorre-
na erakusten du.

Zertaz doa? Bi urteko saiakeren ondoren, Christina "Lusti" Lustenberger eta Jim Morrison mendi eskiatzaileek, Nick McNutt eta Chantel Astorgarekin batera, Trango Glaziar Handiaren eskien lehen jaitsiera historikoa lortu zuten. 6.000 metrora, etengabeko esposizioak, arrisku fisikoak eta izutzeko moduko paretak proban jartzen dute taldearen determinazioa. Espedizio kideen arteko konfiantza muturrekoa izango da imajinaezina den jaitsierari elkarrekin aurre egiteko.

Datorren asteazkeneko ikus-entzunezkoak ikusteko sarrera doakoa da, aretoa bete arte.

"Bertso-afaria Sanmielen aurreko beroketa da"

MAIALEN KORTAJARENA, UNAI IRAOLA POXTA ZAHAR

Aiurri astekariarekin lankidetzan, bertso-afaria antolatu dute. Ostiral honetan izango da Oianumen, 20:30ean hasita, eta azken txartelak sagardotegian bertan daude salgai

Lide Ruiz Telleria URNIETA

Sanmielak gaian ditugu, zein izango da Poxta Zaharren parte hartzea aurtengo jaietan?

Maialen Kortajarena. Urtero bezala, Poxta Zaharrek Txosna Batzordean parte hartuko du beste hiru eragileekin batera. Guz-tira, lau eragile gara txosnan ibiltzen garenak, eta gure kasuan, aurreko urteetan egin izan duguna egingo dugu: kamisetak saldu, lan-txandak egin, antolakuntzan parte hartu...

Aurtengo jaiak berritasun bat izango dute, Txorigorri Raceko lehen edizioa. Nola sortu zen ideia?

Unai Iraola. Poxta Zaharreko hiru gaztek proposatu zuten ideia. Urnietan, duela 10 urte inguru, beste ibilbide batekin, goitibeherak antolatzen ziren, eta gazte horiek ekintza hori berrartu nahi izan dute. Haiek izan dira antolakuntzan aritu direnak. Jende dezente animatu da izena ematera, eta ikusiko dugu ea nola aterako den.

Gazta rollin antolatu zenuten udaberrian eta zabalkunde handia izan zuen ordukoak. Espero zenuten horrelako arrakasta izatea?

M.K. Egia da, ekintza nahiko berritzailea zenez, gure inguruan hitz egiten zen zerbait zela. Era berean, Instagrameko argitalpenak zazpiehun aldiz partekatu zela ikusi genuen, eta orduan pentsatu genuen guk uste baino gehiago zabaltzen ari zela. Egunean bertan telebista ere azaldu zen, eta, egia esan, harritu egin ginen.

Bestalde, jaiak hasi baino lehen, bertso afaria antolatu duzue irailaren 18an. Nolako erantzuna izaten ari zarete?

U.I. Pertsona kopuruari dagokionez, azken ordurarte ez dugu kopuru zehatza jakingo. Izan ere, azken txartelak Oianumen bertan salduko dira. Ingurukoek adierazten digutenagatik, uste dugu erantzun ona izaten ari dela. Bestalde, kontuan izan



Maialen Kortajarena eta Unai Iraola. AIURRI

behar dugu, bi urte daramatzagula bertso-afaria ospatu gabe, iaz ez baikenuen egin. Gainera, bertso-afaria Sanmielen aurreko beroketa izaten da, eta, oro har, jende asko animatzen da, uste dugu aurten ere hala izango dela.

Nolakoa izan da herriko gazteen parte hartzea ekintzen antolaketan? Herriarrek parte hartzeko borondatea adierazi al dute?

M.K. Urte osoan zehar antolatzen aritu gara, eta egia esan, ez dugu antolatzeko gogo handirik sumatu. Hala ere, egia da, Sanmielen barruan jendea beti egoten dela laguntzeko prest, baina ondo legoke jende gehiago gerturatzea urtean zehar egin beharreko lanaren antolaketan parte hartzeko.

Belaunaldi aldaketa edo arduren aldaketa eman da Poxta Zaharren ezta? Nola bizi duzue aurrekoek egindakoa, eta zuek nola bizi duzue gazte taldearen dinamizazioa?

U.I. Bi urte inguru pasatu dira belaunaldi berria sartu ginenetik, eta denbora horretan Gazte Festak, Inauteriak, Gazte Eguna, Gabonetako ekintzak antolatzen aritu gara, eta dagoeneko errit-mora egokitu gara. Egia da,

badirela gauza teknikoago batzuk oraindik kontrolatzen ez ditugunak; aurreko belaundaldiatarra jo behar izaten dugu, baina bestela dinamizazioan ondo gabiltzala esango nuke.

Iaz ez bezala, aurten Txosna batzordeak jaietan txosnagunea jartzeko baimena izango du. Nola baloratzen duzue erabakia?

M.K. Negoziazio neketsu eta luze baten ondoren, gure eskakizunak onartu egin ziren, eta akordio batera iritsi ginen. Horregatik, txosna jartzea erabaki dugu. Bi urte igaro dira, Txosnak jarri genituenetik eta oso gogotsu gaude. Berritasun gisa, aurten, asteazkenean irekiko dira eta oso pozik gaude.

U.I. Hori da, asteazkenetik aurrera, txosnak irekiko dira, eta hortik aurrera orain arte izan dugun egitaraua izango dugu. Aurten osteguna Txorigorri Racearekin hasiko da, ondoren, tortilla txapelketa eta gauean, txosnagunean kontzertuak izango dira. Ostiralean, berriz, karropoteoa, Palestinaren aldeko afari solidarioa eta kontzertuak izango dira, eta, larunbatean, poteoa, herri bazkaria, txaranga eta kontzertuak.

Jaietako hitzordu seinalatuak



Urdanbor, artxiboko irudian. AIURRI

Pregoa Irailaren 25ean, ostiralekin, abiatuko dira jaiak Urnietan. Aurten, jaien hasierako pregoia irakurtzeko eta suziria pizteko ohorea izango dute Urdanbor danborradako kideek. Sanmieletan ezinbesteko eragileak dira.



Artxiboko irudia. AIURRI

Omenaldia Antton Jauregi izango da Urnietako Udalak San Miguel egunean omenduko duen herritarra. Musikaria, irakaslea, kultur ekintzailea... ibilbide oparoa osatu du urnietarrak urte hauetan guztietan. Ondo merezitako aitortza jasoko du aurten.



Txosna-eremua, Urnietako jaietan. AIURRI

Txosnen irekiera Irailaren 23an, asteazkenarekin, Urnietako Sanmieletako txosna-eremuan irekiera-ekitaldia egingo dute. Jaien hasiera alternatiboa izango da, txupina eta guzti botako baitute.



Stelvioko gainean, ezkerretik hasita, atzean: Aitor Garmendia, Iker Garcia, Jose Saez, Xabi Ormaetxea, Iosu Escribano eta Angel Pelaez. Aurrean: Victor Saiz eta Manolo Amiama. Bigarren etapa hori eginda, oraindik hirugarrenetara geratzen zitzairen, etxera itzuli aurretik: Gavia eta Torri di Fraele portuak. LEIZAU

Leizaur taldekoak Italiako mendate ezagunetan barrena

Zortzi ziklista amorratuek osatu zuten espedizioa ekainaren amaierako eta uztailaren hasierako egunetan, Italiako Giroaren ospearekin lotuta doazen hainbat mendate (Stelvio, Passo Gavia...) elkarrekin igotzeko asmoz

Xabier Lasa ANDOAIN

Igande goizero Leizaur parke ondoan daukate jarrita hitzordua bizikleta txangoa egiteko, Leizaur elkarteko zikloturistek. Bizikleta gainean, gogor eragiten diete pedalei, eta tarteka, xextra sanoak ere edukitzen dituzte nor lehenengo iritsi mendate bat aurrean jarri orduko. Irteera horietan, honetaz eta hartaz mintzatzeko ere hartzen dute denbora. Goiz haietako batean bota zien ideia Iker Garciak besteei: Andazarrate, Ezkurrako gaina, Azpirotz, Aralar, Jaizkibel eta inguruko gainerako portuak albo batera utzi, eta ea zergatik ez Giroko gailur famatuei heldu? Manolo Amiama, Angel Pelaez, Iosu Escribano, Victor Saiz eta Xabi Ormaetxeak eutsi zioten erronkari. Egitasmoa gauzatzen joan ahala, Zaldibiako bi gazte, Jon Saez eta Aitor Garmendia, batu zitzaizkien.

Taldeko gehienek tankerako espedizio batekin hartuta zeukaten eskarmentua lehendik ere. Izan ere, 2019ko ekainean Alpeetara abiatu ziren, eta hango portu mitikoak (Galibier, Alpe d'Huez, Col du Glandon, Lacets, Montvernier...) igo zituzten orduan, inongo ezustekorik jasan gabe. Pozez txoratzen itzuli ziren Andoainera.

Biribila irten zitzairen orduan, eta zazpi urteren ostean egin duten bigarren irteera luzearekin ere ez daukate kexatzeko askorik, nahiz eta bizikleta gainean jarri bezperan, istripuren bat eduki.

Heltzeko zorian, ezustekoa

Iker Garciak diseinatu izan ditu bi abenturen nondik norakoak eta prestatu logistika guztia egunez eguneko, zein mendate eta noiz igo, gauak lo non egin, zortzikotearen Italiako joan-etorria egiteko furgoneta lortu... Egun, badira zenbait enpresa edo agentzia den-dena antolatzen dituztenak: joan-etorriko bidaia, ostatur, otordua, irteera eta helmuga diferenteko etapak, furgoneta bidelagun...

Gero eta zabalduagoak daude txirindularien unibertsoan halako zerbitzuak. Baina eskola zaharreko estiloari eutsi zion Leizaurko taldeak, jakitun izanik bidaia abentura gisa planteatzek, berarekin dakarrela arriskua... Alde horretatik, dena bikain irten zitzaizela aitortu arren, izan zuten eskapada txikiren bat azpimarragarria. Garciak berak kontatu digu erabat lotuta zeukan "gidoitik" ihes egin zion detaileak.

"Dena primeran irten zitzaigun, zoragarri! Aurrez prestatuko ibilaldi guztiak egin genituen. Nolanahi ere, aipatu beharra daukagu istripu bat hasiera-hasieran, kasik zapuztu zizkiguna gure ilusio guztiak. Horrela, etxetik abiatu eta helmugara iritsi baino 20 kilometro lehenago, pott egin zigun furgonetak. Hura buruhaustea! Seguruarekin eta garabiarekin telefono deiak, 60 kilometroraz zegoen tailer mekanikoarekin kontaktua egin, zortzi lagunak hotelera eramango gintuen taxia lotu... Iluntze aldera, bide bazterrean hantxe, etsi-etsi eginda igaro genituen ordu batzuk, taxia heldu zitzaigun arte. Espedizioak hasiera-hasieratik porrot egin zuen ustea



Passo Gavian, atzean, ezkerretik eskuinera: Jose Saez, Aitor Garmendia, Manolo Amiama, Victor Saiz, Angel Pelaez, Iker Garcia eta losu Escribano. Aurrean, Xabi Ormaetxea. LEIZAUR

eduki genuen denbora guztian. Zorionez, hurrengo goizean tailerretik hots egin ziguten, matxura ez zela larria eta laster konpondu zezaketela esanez”.

Dena esatera, ustekabe hartan, italiarrak zerbait ezagutzeko aukera eduki zuten, eta horrek eman zien zertan mintzatua, baita pilatutako barne-tentsioa pittin bat hustu ahal izatea ere. Italiako gizartearen erretratu satiriko, kritiko edo dibertigarria egite dituzten komedia italiar klasiko horietako baten protagonista sentitu ziren une batez. Hasteko, Carabinieri-en bisita izan zuten, Amiamak gogoratu duenez. “Autobiaren ia erdian geundela, gerturatu egin zitzaizkigun; trafikoa zuzentzera zihoazela pentsatu genuen, baina keba: zer gertatu zitzaigun galdetu, eta alde egin zuten berehala! Handik denbora batera, taxi-gidari bat heldu zitzaigun, xelebrea benetan, inauterietatik edo parranda batetik zetorrela zirudien! Itxurak itxura, jatorra askoa gertatu gizona! Geure maleta eta motxila guztiak autoan sartu, eta zortzi lagunak zintzo eraman gintuen hotelera. Hori bai, bidean, etenik gabekoa izan zen bere hitz-jarioa!”.

Dolomitetan, zoragarri

Behin matxura konponduta, hurrengo egunean, Dolomitak mendi-katea zeharkatzea egokitu zitzaien. Ekinaldi gogorrari esker, aurrez pentsatutako hiru portuak (Pordoi, Fedaia eta Falzarego) hartu zituzten mendean; “Txango latza izan arren, eman zigun denbora Dolomitetako orratz itxurako gailur malkartsuak eta ikusteko, pasaia guztiaz gozatzeko. Ez dute zerikusirik Alpeetako edo Pirinioeta-

ko gailurrekin!”, Pelaezek adierazi duenez.

Handik bi egunera, espedizio-ko bigarren erronkari heldu zioten: Stelvioko Pasuko gailurra. Alpeetako bigarren mendaterik altuena da (Col de l’Isere-n atzetik), eta 25,4 kilometroetan %7,5ko maldako aldapatzarra gainditu behar da goraino iristeko. Balentria galanta hartu zuen zortzikoteak, kontuan hartuta, aurrez, 18,43 kilometroko luzera eta %7ko malda

daukan Passo Umbrail gailurretik igarotakoak zirela.

Zortziak airoso samar iritsi ziren goiko puntara, batzuk lehenago, beranduxeago besteak. Zortzikotearen zoramena neurrigabekoa izan zela kontatu dute Amiamak, Alvarezek eta Garciak. “Pentsa nola geunden, errepideko ziklista zaletuentzat amets handi horietako bat izaten dena bete ondoren!”. Dena esatera, Amiamak zehaztu nahi izan du igoerarekin gozatu zutela gehiago, jaitsierarekin baino. “Egundoko trafikoa izaten da Stelvioko errepidean, ederki jabetu ginenez; ziklistek ez ezik, turistek nahi izaten dute igo hara autoz, motoz edo busez, eta eromena da han sortzen den zalaparta! Gainera, inpresioa hartu genuen auto-gidari adrebes samarrak direla italiarrak; kontuz-kontuz jaitsi behar izan genituen 25 kilometroak”.

Bizikidetza, ezin sanoagoa

Urtetan elkarren artean alde handia daukaten hiru belaunaldi elkartu ziren Italiako espedizio horretan. Alde horretatik, aurrez erreparo pittin bat edukitu zutela aitortu du Garciak, are gehiago bera arduratu baitzen bidaia antolatzeaz. “Kezka bageneukan zer nolako bizi-giroa sortuko ote zen guztion artean, 24 ordu elkarrekin ibili behar horrekin. Izan ere, talde bat antzeko kirol espedizioetarako biltzen denean, ez baita erraza izaten uztartzea bakoitzaren nortasuna, interesak, maniak, kirol-gaitasunak... Bestalde, Leizaurreko ziklistekin ibili gabeak ziren Aitor eta Jon gazteak... Bada, a ze poza, izugarria izan zen zein natural moldatu ginen elkarrekin! Gogoan daukat Xabi Ormaetxeak itzuleran egin zigun komentarioa, alegia Dolomitak ezagutzeko irrikatan joan zela, baina lagun-giroa izan zela topatu zuen gauzarik gozagarriena”.

Ormaetxea taldekidea aipatzen hasita, hiruek ere ez dute ahaztu hark Italian hartu zuen ardura, sukaldean. “Eskerrak eman behar dizkiogu Xabierri, primeran elikatu baikinaren egunero. Oso txukun aritu zen, bezperan dena prest uzten zuen hurrengo egunerako. Hari esker, ederki asko berreskuratu genuen egunez egindako ahalegin fisikoaren eraginez galdutako guztia”.

Eskerren atalean, nola ez, nork bere familia gogoan hartu behar, aste betez beren “kapritxoa” bete zezaten sakrifikatu behar izan dutelako etxean.

Amiama eta Pelaez, bi veterano erregaitz

Manolo Amiamaren eta Angel Pelaezen parte-hartzea ere azpimarragarria izan da Italiako gailurretara egindako txango horretatik. Orain ia mende erdi Andoingo Leizaur zikloturisten elkarrearen sorreran parte hartu zuten, eta sasoi ederrean jarraitzen dute oraindik ere, 80 urtetik gora doazelarik. Etenik gabe ibili izan dira bizikletan gazte-gaztetatik, eta oraingoz ez daukate batere asmorik errepideetatik erretiratzeko.

Gogoak bestelakoa adierazi arren, bizikleta elektrikoari heldu beste erremediorik ez dutela eduki azken aldian, aitortu dute biek: “Urritzen ari zaigu garai bateko sasoi noski, eta elektrikoarekin hasi gara. Errepidean pedalkadak ilusioz ematen jarraitzeko aukera ematen digu. Gainera, taldean zoazenean ez da batere atsegina egiten zuregatik inor zain geratu behar izatea”. Tramankulu berri hori menperatzeko ederki asko etorri zaie bie Italiako itzulia, Amiamak gaineratu duenez. “Italiako mendi-portuek egundoko distantzia daukatenez, ez zaigu erraza egin dosifikatzea bizikletaren bateriaren emana. Bateria erdibidean kontsumituta gera zitekeela, eta hala gertatzekotan, kilo askoko bizikletarekin ez aurrera ez atzera gera gintezkeela pentsatzeak, zuhur jokatzea eraman gaitu. Ondo atera zaigu erronka, eta ikasi dugu neurria hartzen bizikleta horri”.

2019an Tourreko eta aurtengo Giroko gailurrik ospetsuenak bizikleta gainean gainditu ostean, hemendik aurrera zer geratzen ote zaien egiteko galdetuz gero, laster asko erantzun dute. “Leizaurreko kideekin igandero jarraituko dugu, eta zergatik ez, egunetan laburragoak izan daitezkeen txangoak egiteko pronto gaude biok. Urrutira gabe, Pirinioetan ere badira mendate galantak, gozagarriak bizikleta zaleontzat, nahiz ez eduki ospe handiegirik”. Hori esanda, Iker Garciari begira jarri dira biak; akaso hark dagoeneko badauka txango berriren bat burutan, taldea tentatzeko...



Angel Pelaez, Manolo Amiama eta Iker Garcia, Italiatik itzuli eta gero. AIURRI



Gimnasia erritmikoa, Zumea plazan, iaz. AIURRI

Jarduera fisikoen eguna, larunbat honetan

"Mugitu Andoain" hainbat kokapenetan egingo da; amaiera ekitaldia, berriz, Zumea plazan

Erredakzioa ANDOAIN

"Mugitu Andoain" ekimenaren edizio berria larunbat honetan izango da eta jarduerak udalerrira osora zabalduko dira. Larunbatekoa elkarlanaren fruitu da, izan ere, egitasmoa aurrera ateratzeko lankide izango dira Ibili Andoain, Euskalduna, Leizaran, Ganbara, Gazteleku, Zumeatarra eta beste hainbat elkarte eta ekimen gehiago. Goizean hasita, jarduera ugari ezagutzeko aukera izango da.

MUGITU ANDOAIN!

Irailak 19, larunbata

Gravel bizikleta irteera. +18

Zumea plaza, 08:30.

Arrantza-tailerra

Grazia Garagorri eta Santakruz-zubiak, 09:00-12:30.

Mendi-irteera. +6

Goikoplaza, 10:00.

Kenpo kai tailerra +8

Zumea plaza, 10:00.

Nordic walking-ikastaroa. +18

Hastapena.

Goikoplaza, 10:00-13:00.

Kangoo jumps probatu. +18

Goikoplaza, 10:30.

Duatloia ezagutu. +8

Ubitarte, 10:30.

Mendi bizikleta-irteera. +8

Txangoa, Leizaran bailatik.

Goikoplaza, 10:30.

Kirol egokitua: Futbola-Eskubaloia-Saskibaloia

Allurralde, 10:30-12:30.

Kirol egokitua: Pala

Goikoplaza, 11:00.

Ibili Andoain. +65

Goikoplaza, 11:00.

Gimnasia erritmiko-tailerra +6

Zumea plaza, 11:15.

Dantza lerroan. +65

Zumea plaza, 12:15.

Amaiera ekitaldia Zumea plazan egingo dute, eguerdiko 13:00tan hasita. Partaideek opari bana jaso eta pintxoak dastatzeko aukera izango da.



Artxiboko irudia. AIURRI

Ostegunetik larunbatera, Outlet kalean, Andoainen

Tokiko merkataritza sustatzeko egitasmo bikoitza: "Bezeroaren Astea" eta "Braderie"

Erredakzioa ANDOAIN

Irailera iritsita, tokiko merkataritza sustatzeko egitasmo bikoitza martxan jarri du Salkin Andoaingo elkarteak.

"Bezeroaren Astea"

Astelehenean hasita, Andoaingo Salkin elkarteke merkatalguneetan erosketa eginez gero, 2.500 euroko balioa duen bidaia-erosleak. Nola? Hasteko, txartela banatuko dute eta sei zigiturekin osatu behar da. Urriaren 18ra bitarte eskuratu eta zozketa urriaren 19an egingo dute.

Gonbitea luzatu dute, egunotan: "Salkineko komertzioetan, 6 zigilu ezberdinekin, 2.500 euroko balioa duen bidaia baten zozketan parte hartuko duzu".

"Braderie"

Outlet kalean egingo dute ostegunetik larunbatera, hots, irailaren 17tik 19ra. Ekimenari hasiera emateko, gainera, txistulariak kalez kale ariko dira ostegunean, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

Ekimen bikoitzak Andoaingo Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesak jaso du.

BRADERIE

Irailak 17-19

Irailaren 17an txistulariak

18:00-20:00

SALKIN
batalik tolaru

Aldizkariak
Irailak 17-19

Irailak 17-19



Jardunaldien aurkezpena. GKS

Gazte Topagune Sozialistaren aurkezpenak

Andoainen eta Urnietan Topaguneari buruzko azalpenak emateko hitzorduak iragarri dituzte

Erredakzioa ANDOAIN

Gazte Koordinadora Sozialistak (GKS) eta Ikasle Antolakunde Sozialistak (IAS) VI. Gazte Topagune Sozialista antolatu dute urriaren 9tik 12ra bitarte. Azkeneko edizioa Altsasun egin zuten eta, aurtengoa, Nafarroako beste eskualde batera mugitu dute, Elizondora hain zuzen.

Topaguneko xehetasun guztiak ezagutzeko, Buruntzaldeko eta Tolosaldeko GKSek eta IASEk eskualdean aurkezpenak antolatu dituzte. Irailaren 18an, Urnietako Elkarteetan etxean, arratsaldeko 18:30etan hasiko da aurkezpena. Eta Andoaingo, berriz, irailaren 26an Andoaingo Gaztetxean; larunbata izanik, eguerdiko 12:30ean hasiko da aurkezpena.

Egitarau zabala, aurtengo Topagunean

Alor ugarietan trebatzeko aukera egongo da asteburu horretan. Hori diote deitzaileek: "Euskal Herriko gazte langileok elkartzeko helburuarekin egiten dugu eta bertan gaur egungo auzi ezberdinen inguruan hausnartu eta eztabaidatuko dugu". Kulturak ere bere tokia izango du, musika kontzertuez, antzerki emanaldiez zein umore ikuskitzenez gozatzeko aukerarekin.

GIPUZKOA

Foru Aldundia

Babestutako hedabidea

Senior mailako futbol denboraldia abiatzear da

Gorengo mailan, emakumezkoetan eta gizonezkoetan, ordezkaritza izango dute Euskaldunak eta Urnietak



Partida ofizialak hastear dira. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN
Prestaketa saioak eta lagunartekoak jokatu ostean, liga hastera doa Gipuzkoan. Asteburu honetan, gizonezkoen mailakoak. Datorrenean, emakumezkoena. Senior mailan, Gorengo mailan ariko dira Euskalduna eta Urnietak. Bi taldeek, gainera, ordezkari bana izango dute.

GORENGO MAILA	
GIZONEZKOAK	
15:30	Sanpedrotarra-Urnietak / Lar.
18:00	Segura-Euskalduna / Ig.
EMAKUMEZKOAK	
-	Martutene-Urnietak / Ir.26-27.
-	Ostadar-Euskalduna / Ir.26-27.
ARETO FUTBOLA	
GIZONEZKOEN KOPA	
20:15	Urnietak-Ekin Oria / Ostirala.
16:30	Euskalduna-Altza / Igandea.



AIURRI

Gurru memorialaren bosgarren edizioa

Denboraldi aurreko asteburu betea igaro berri da Ubitarte zelaian. Batetik, emakumezkoen Larramendi Torneoa. Landetxa izan da aurtengo irabazlea. Bestetik, infantil mailako txapelketa jokatu da, Gurru Memorialaren V. edizioa.

Nesken eta mutilen mailako lehiak Mariño eta Touring nagusitu ziren. Bi txapelketetan Euskaldunako ordezkaritza izan zela zelaian. Euskaldunaren historian esanguratsua izan zen pertsona eta familia gogoan hartzeko ekitaldi polita izan zen igandekoa.



Une gogoangarri asko bizi izan ziren aurreko denboraldian. AIURRI

Leizaran Eskubaloiko hamalau talde murgilduko dira lehiak

Asteburuan abiatzekoa da denboraldia eta, aurretik, ostiral honetan, taldeen aurkezpen ekitaldia egingo dute

Jon Ander Ubeda ANDOAIN
Taldea izaera indartzeko eta Leizaran Eskubaloien dimentsioa hobeto ezagutzeko baliagarria da aurkezpen ekitaldia. Azken urteotan joera horri eutsi dio klubak eta, zinez, ekitaldi garrantzitsua da klubaren nortasuna indartzeko. Ostiral honetako hitzordua arratsaldeko 19:00tan abiatuko da.
Aurreko asteburuan denboraldi aurreko eskubaloien txapelketa antolatu zuten eta Andoainera Gipuzkoako eta Nafarroako taldeak gonbidatu zituzten. Infantil, kadete eta jubenil mailako mutilen txapelketa izan zen. Emakumezkoen txanda, osterak, Gabonetan iritsiko da.

14 talde, denboraldi berria
Klubak emandako datuen arabera, Leizaranek bost talde izango ditu infantil mailan (hiru, emakumezkoenak; bi, gizonez-

koenak), lau kadete (2, emakumezkoenak; bi, gizonezkoenak), hiru jubenil (emakumezko bat, gizonezko bi) eta bi talde senior, emakumezko eta gizonezko bana. Lehiak ariko direnaren gain, benjamin eta alebin mailako Eskubaloien Eskola gehitu behar da. Hori guztia zerbaiteraz eraman da, kopuru handia da: 276 jokalarik eta 30 entrenatzailetik gora izango dira denak.

SENIOR MAILA	
GIZONEZKOAK	
11:15	Leizaran-Aritzatalde / Igandea.
12:00	Arrasate-Urnietak / Igandea.

TALDEEN AURKEZPEN EKITALDIA OSTIRAL HONETAN IZANGO DA, 19:00TAN HASITA, ALLURRALDEN

IRAILAK 19

LARUNBATA · 15:15

GALARRETA

JAI ALAI

SARRERAK

IKUSKIZUN PARTIDA

SEGUROLA · JUANENEA VS

BARRENETXEA IV · ZUBIRI

BURUZ BURUKO TXAPELKETA (30 TANTORA)

AZPIROZ VS

EZKURRA II

IKUSKIZUN PARTIDA

ALDABE · GOIKOETXEA VI VS

GOIKOETXEA V · AIESTARAN VI

XXIV. BURUZ BURUKO

EUSKALAN TXAPELKETA 2026

DATOZEN HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

IKUSZIRKUS

ANDOAIN Anonima

Vaiven Circo konpainia. Ikustezinak diren pertsonaien ibilerak, testurik gabeko antzezlanean.

Irailak 18, ostirala.
19:30, Bastero.

ANDOAIN Txondor plaza

Argimalutak konpainia.

Irailak 26, larunbata.
18:30, Goikoplaza.

KONTZERTUA

ANDOAIN DJ saioa

Kyubid, Louky eta DJ ibaiz8.

Irailak 19, larunbata.
23:30, Gaztetxea.

AURORAK

URNIETA Kantuan, kalez kale

Manttaleren ekimen berria.

Irailak 19, larunbata.
08:00, San Juan plaza.

BERTSO-AFARIA

URNIETA Oianume

Beñat Gaztelumendi eta Eli Pagola.

Irailak 18, ostirala.
20:30, Oianume. 35 euro.

IKASTAROAK

ANDOAIN Eskulanak

Egur taila, pintura, eskulanak eta joskintza ikastaroak.

Izen-ematea: Irailak 14-23.
Bastero Kulturgunea.

URNIETA Jabekuntza Eskola

Ikastaroak eta tailerrak, ikasturte berrian. Xehetasunak, 4. orrialdean.
Matrikula zabalik.

TAILERRA

ANDOAIN Berdintasun Saila

"Bibollo Tantra: Presentzia, gozamina eta samurtasuna" izeneko hastapen-tailerra.

Irailak 26, larunbata. Allurralde.
10:30-14:30 / 16:00-18:00.



Erorketak saihesteko tailerra, ostiral honetan, Urnietan. UDALA

URNIETA Hitzaldia

Erorketen arrazoiak, prebentzioa eta erorketak gertatuz gero nola jokatu landuko da. Hizlariak, osasun zentroko erizain bat eta fisioterapeuta bat izango dira. Parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute Urnietako Osasun Zentroaren telefonora deituta (943 00 66 80).

Irailak 18, ostirala. 11:00-12:30, Kiroldegia.

AISIALDIA

ANDOAIN Matrikulazioa

Ludotekako matrikulazio-epealdia laster zabalduko dute. Online edo presentzialki egin ahal izango da.

Izena emateko epealdia:
irailak 14-25.

MENDI TOUR

URNIETA Mendi film jaialdia

Nazioarteko jaialdi ezagunaren pelikula onenak Urnietan ikusgai izango dira.

Irailak 22, asteartea.
19:00, Sarobe.

BERTSO-AFARIA

OSTIRAL HONETAN! 20:30

OIANUME, URNIETA

Bertsolariak: Beñat Gaztelumendi. Eli Pagola.
Gai-jartzailea: Amaia Agirre

AZKEN TXARTELAK OIANUMEN SALGAI

Prezioa: 35 euro

Antolatzaileak:

AIURRI

ZORION-AGURRAK



URNIETA
Jokin, zorionak!
Hilaren 19an 14 urte beteko dituzu. Egun oparoa igaro eta gozatu etxekoekin.



ANDOAIN
Zorionak Aratz!
Gure mutikoak 9 urte bete ditu jada! Muxuak Aia eta etxeko denekin partez!




ANDOAIN
Zorionak Kale eta Emilio!
Irailaren 15ean 65 urte ezkondu zinetela! Ondo ospatu platinazko ezteiak etxeko guztiekin. Muxu asko. Maite zaituztegu!

ZINEMA



ANDOAIN
BASTERO
Un plan perfecto
Larunbata, 19.
19:30.
Igandea, 20. 19:30.
Astelehena, 21.
17:00, 19:30.

Tadeo Jones y la lampara maravillosa
Larunbata, 19.
17:00.
Igandea, 20.
17:00.



SINOPSISIA

Un plan perfecto

Zuzendaria: Maria Pulido. **Aktoreak:** Jordi Sánchez, Leo Harlem, Raquel Guerrero, Ernesto Sevilla.... **Hizkuntza:** Gaztelaniaz.

Generoa: Komedia. **Iraupena:** 93 m.

Leo Harlem eta lagunaren abenturak, oraingoan, lapurren azalean

Gabonak dira. Ibañeztarrak desastre hutsak dira. Hondatuta daude eta elkarren arteko bizikidetzara desastre bat da. Etxegabetu behar dituzten bezperan, sotoan norbaitek tunel bat egin zuela ikusiko dute, etxe parean duten bankua lapurtzeko asmoz. Rufus erretiratutako lapur beterranoaren laguntzarekin, familiak tunela osatzea eta bere bizitzako kolpea ematea erabakiko du. Hala ere, elkarbizitza eta taldean lan egitea tunelaren azken metroak zulatzea baino askoz zailagoa izango zaie. Familia-gatazken, zentzugabekeriaren eta dena gaizki ateratzen dela dirudien lapurretaren artean, tunel horren amaieran, milioi askoko altxorra baino zerbait garrantzitsuagoa aurkitu dutela ondorioztatu dute.





Artxiboko irudia. AIURRI

Tokia badago Urnietako Udalak antolatutako kirol ikastaroetan

Irailaren 21ean abiatuko da ikasturtea eta oraindik ere izena emateko aukera dago hainbat jardueretan

Erredakzioa URNIETA

2026-2027 ikasturteari begira, jarduera fisikoari loturiko hainbat ikastaroetan plaza libreak daudela iragarri du Urnietako Udalak. Zehazki, honako hauek: Spinning, Tonifikazioa, 3. adina, Bodyzumba, Pilates, Gim-

nasia funtzionala, Bodypump, Gap+Hipopresiboak, Total Training eta Stretching. Interesaduenak kiroldegiko harreraren eman behar du izena Plazak izen-emate hurrenkeraren arabera esleituko dira. Informazioa: 943 008 328 / kirol@urnieta.eus.

Urrian abiatuko da Katekesia, Andoainen

Parrokiek iragarri dutenez, urritik aurrera hasiko da umeentzako katekesia. San Martin parrokiaren egingo dute, hilean behin, igandearekin, 10:30etik 12:30era. Lehen mailako haurrentzako izen-emateak irailaren 14, 15, 16, 17 eta 18an egin ahal izango dira, 17:00etik 19:00etara, San Martin parrokiako bulegoetan. Informazio gehiago: 943 591 059 (Andoaingo parrokia).

Izaera handiko sagardoa espero da

Euskal Sagardoa Jatorri Deiturarako sagar bilketa hasi da Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako sagasti gehienetan. Iazko urtearekin alderatuta, uzta nabarmen txikiagoa da aurten eta 1,5 miloi kg Euskal Sagar biltzea aurreikusten du Kontseilu arautzaileak. Heldutasunari dagokionean, iaz baino azukre gehixeago dakar sagarrak, ur gutxiago eta bero handiagoa izan duelako.



Artxiboko irudia. AIURRI

Asteburu honetan, Plazido Muxika plazan, xake partidak

Parte hartzaile bakoitzak zazpi partida jokatuko ditu, emaitza edozein dela ere

Erredakzioa URNIETA

Astigarragako Xake Elkartek antolatuta, Sanmielen atariko xake txapelketa antolatu dute Urnietan. Larunbat honetan izango da Plazido Muxika plazan, arratsaldeko 17:00etan hasita. Eguraldi txarra eginez gero,

Egapen izango da. Antolatzaileek iragarri dutenez, 7 txandetako Suitzarra izango da jokamoldea, 5'+3" partidatara. Parte hartzaile bakoitzak zazpi partida jokatuko ditu, emaitza edozein dela ere. Parte hartzeko beharrezkoa da izena ematea.

Euskara sustatzeko dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea zabalik irailaren 14tik urriaren 30era

- Aisialdiko begirale eta zuzendari titulua eskuratzeko ikastaroak eta hezitzaileen berariazko prestakuntza egiteko.
- Merkataritza eta ostalaritzari zuzendutakoak: kanpo eta barruko hizkuntza paisaia euskaraz jartzeko (errotuluak,

karteldegia...), webguneak eta programa informatikoak euskaraz jartzeko.

- Andoaingo elkarteek bertso saioak antolatzeko.
- Gidabaimena azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditu duten herritarrentzat.



Dirulaguntzen inguruko informazio gehiago:

- www.andoaindarraeuskaraz.eus/dirulaguntzak/ eta
- Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuan (euskara@andoain.eus; 943 300 831)



ANDOAINGO UDALA





ANDOAINGO
EUSKERA,
BIHOTZETIK
KALERA

EGIGUN DENON ARTEAN!

Ekitaldiaren
aurkezpena
herritar
guztiei zabalik

**IRAILAREN 25EAN,
OSTIRALAREKIN**

18:30

**HASIERA
EKITALDIA**

Kale Berria, 50
(Guipuzcoano
zaharra)

19:00

AIDÜRÜ
Kaimuturra
(espigoia)

AIDÜRÜ
taldearen
doinuekin
gozatuta!

Zatoz
gurekin
eztarria
freskatzera!



MARAVENDI